

EUSKAL SINESKERAK (II)



JUAN MANUEL ETXEBARRIA

JUAN MANUEL ETXEBARRIA

**EUSKAL
SINESKERAK
(II)**

IBAIZABAL

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako
Kultura eta Turismo sailaren
laguntza jaso dau

Eragilea: Fermin Iraolagoitia

Egilea: Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Marrazkilaria: Arrastalu

Inprimaketa: Igarri, S. C. L. - Rafaela de Ybarra, - Deusto-Bilbao

I. S. B. N.: 84 - 86399-05-X

Deposito Legal: BI - 2.562 - 89

Argitaratzailea: I. K. A., Euba. Tnoak: 673 42 46.

Argitaletxea: Ibaizabal - 146

AURRE-BERBAK

Idazten danean, beti egiten da zeozergaitik, zeozertarako eta baten batentzat.

Azkenengo hamarkada biotan, etorkizuneko euskera batuaren atea zabaldu da, ate estua, eta danok eroan gura gaitue ate eta ate-oste estu horretarik zehar.

Atzera begiratzen badogu, hor be baditugu beste ate batzuk, zabalak, erosoak eta belaunaldiz belaunaldi herriak bere galbahetik eralgitakoak.

Etorkizuneko atea zabaltze horrek ez dau lehengo atetik zarratu behar, zabalik euki eta behar dan guztia etorkizunera bideratu baiño.

Hortixik goaz oraingo honetan. Aurrean dituzun ipuinok, herri-herrikoak jatzuz, aberastasunez beteak, bizi biziak eta edozeinek irakurtzekoak ipuin bakoitzaren atzeko hiztegiak lagun.

Euskaldunen espazio kulturala, euskera barruan dala, zabalak eta aberatsa izan dogu. Honeetan ipuinotan, beren beregi jo deusut espazio zabal horretako gure EUSKAL SINESKERA zaharretara, gu geu be, beste herri batzuk baino gitxiago ez garalako.

Euskera aldetik, Bizkaiera gaurkotuaz natorkizu, Bizkaiera aberatsa dalako eta Bizkaierari zor deusagulako gurasoengandik hartu dogun hagea.

Bizkaia Euskadi bada, Bizkaiera euskera da eta Bizkaieraren ateak ez dau ezelan be batuarena zarratzen, nasaitu eta osotzen lagundu baino.

Euskeraren etxe zaharrea, han, hor, hemengo euskaldunak bizi gara eta etorkizunari begira ezin dogu betiko etxe zaharra bota eta barria egin, zutik dagoela berriztatu baino. Bizkaierak, sakontasunean ezagutuz gero, hainbat et hainbat gauza eder dauka barritze horretarako. Aikomen batzuk ipuinotan. Irakurri, gozatu eta BIZI euskera bizia batasunaren bidean.

«Zahar on egin daitela»

Orra! Orra! Gure Olentzero


On Jose Migel Barandiaranek dinoanez, Euskal Herriko mendi baten JENTILAK egozan ikatza egosten.

Jentilak, basajaunak lako gizon handi eta indartsuak ei ziran, Jesukristo jaio baino aurreragokoak.

Nekazaritzan eta industrigintzan herritarrak baino aurrerago ei egozan.

Koba handietan bizi ei ziran eta indartsuak genduzan legez harribolan egiten ei eben mendi batetik bestera.

Negua hasi barriko egun baten, jentilak ikatza egosten egozala, Ekialdetik laino zuri distiratsu bat agertu jaken.



Ikaratu egin ziran eta batek ere ez ekian zer zan ha
laino zuri eta ederra.

Laino berezia zan. Astiro-astiro etorren eta geroago eta
argi handiagoa eukan.

Jentil guztiak, handiak eta indartsuak izan arren, bil-
durrez bete ziran eta ez ekien zer egin.

Halakoren baten jentil batek esan eutsen besteei:

«Laiño zuri hori ez dakigu zer dan; zergaitik ez goaz
gure jentil zaharrarengana eta itandu zer dan edo zer ez
dan?»

Gu gazteak gara eta ez dakigu zer dan baina gure jentil
zaharrak beharbada jakingo dau».

«Egia dok!» —erantzun eben beste guztiak—.

«Goazan lehen bait lehen jentil zaharrarengana eta
berak esango jeuskuk zer dan».

Arineketan joan ziran hara, jentil zaharra ezarrita
egoan tokira.

Jentil zaharra, benetan ere zaharra zan. Zaharraren
zaharraz begiak ere itxita eukazan eta ezin eban ezer ikusi.

Entzun ere oso gitxi entzuten eban. Eskuak eta hankak
gogorturik eukazan eta ez zan gauza ezertarako, dana inork
egin behar izaten eutsan.

Burua makurturik egoan, goibelduta, gogo barik, indar barik eta noiz hilgo itxaroten.

Jentil gazteak hurreratu jakozan eta arnasestua lasaitzeko asti barik esan eutsien:

«Ekialdetik laino zuri argitsu bat dator eta ez dakigu zer dan. Zugana gatoz ia zuk ete dakizun».

Jentil zaharrak orduan, burua astiro-astiro gorantz jasorik esan eutsen:

«Zabaldu eidazuez nire begiak laino berezi hori ikusteko eta esango deusuet zer dan».

Orduan jentil gazteak, hartu egurrezko palanka handi batzuk eta jentil zaharraren betazalak zabaldtu eta laino zuriari begira jarri eben.

Ixilik egozan danak. Jentil zaharra ixilic eta gazteak ixilago. Danak laino zuriari adi. Ha zan ikustea! Munduko gizonik handi eta indartsuenak, ikaraturik eta bildurkilic laino bereziaren azpian!

Dardar egozan danak eta jentil zaharrari begi barruak gorritzen hasi jakozan.

Halakoren baten jentil zaharra hitz egiten hasi zan esku biak gorantz jasorik:

«KIXMI» jaio dok! «KIXMI» jaio dok; Gureak egin jok! Bota naizue haitzetik behera!

«Baina, nor da KIXMI?» —itandu eutsien jentil gazteak jakingura handiaz—.

Jentil zaharrak orduan, barrero burua makurturik esan eutsen:

«KIXMI, Jaungoikoa da eta mundura etorri jaku. Gu-reak egin dau. Gu ahaztuta geratuko gara betiko. Jesus Jaungoikoa da orain nagusi».

Hau entzutean, jentil guztiak harriturik gelditu ziran eta jentil zaharrak esan eutsen legez, danen arte hartu jentil zaharra eta haitzetik behera bota eben.

Jentil zaharra hil egin zan eta beste jentil guztiak goiko haitzaren puntan behera begira egozan burua esku bien bitartean sartuta, zer egin ez ekiela.

Halakoren baten, erdi zoraturik eta zorabiatuta, Mendebalderantz etortea ebatzi eben.

Arin ere arin etozan bidean eta atzerantz begiratzen eben bakoitzean laino zuria ikusten eben eta gehiago larritzen ziran.

Ibili eta ibili, baina laino zuria beti euren atzean. Ez eukien zereginik. Euren buruak galduta ikusten ebezan legez mendi arteko harri handi baten azpian sartu ziran eta danak hil ziran harripean. Horregaitik hari harri hari «Jentilarri» deritzogu.

Jentiletatik gazteena, besteak baino atzeragotik etorren

eta bakarrik geratu zala ikustean, besteak legez harripean sartu barik inguruko herrietara joan zan barri ona emotera.

Azkenengo jentil hau alai zan, OLENTZERO eukan izena eta herritarren lagun handia zan legez poz-pozik joian herrirantz barri eder hori emoteko asmoz.

Joan eta joan mendi, haran eta basoetatik, halakoren baten euskaldun herritxu batera heldu zan.

Herrira heldu zanean, bere indar guztiarekin hasi zan esaten:

KIXMI jaio dok KIXMI jaio dok!

Poztu zaitze!

Jesus Jaungoikoa jaio da Belenen!

Poztu, poztu zaitze!

Herritar guztiak Olentzeroren ahots indartsua entzutean, etxeetatik urten eta herriko enparantzara joan ziran.

Olentzero herriko enparantzaren erdian egoan ixildu barik barri ona emoten eta apurka-apurka herritar guztiak alkartu ziran. Olentzeroren inguruan.

Danak pozik, danak txaloka eta saltoka.

Ha zan pozaldia! Danen ahoak inoen bardin:

«Gora Jesus Jaungoikoa! Aintza zeruetan eta bakea lurrean!».



Herri haretako biztanle guztiak asko poztu ziran eta Olentzerorekin jaialdi bat ospatzea onartu eben.

Olentzero ere poz-pezik egoan herritarren poztasuna ikusirik baina asko ibili zan legez nekatuta egoan eta gose eta egarri be bagendun.

Herritarrak orduan, Olentzero gose eta egarri zala ikusirik, euren etxeetara joan ziran Olentzerorentzat janari eta edari bila.

Olentzero enparantzaren erdian ezarri zan eta jateko eta edateko zer ekarriko ete eutsien zain egoan.

Era guztietako janariak eta edariak ekarri eutsiezan azkenengo jentil Olentzerori.

Olentzerok, ekarriahala, dana jan eta edaten eban eta bere sabela geroago eta handiago egiten joian.

Herritarrak, Olentzero hainbeste jaten ikustean, barrero etxeetara joan eta janari gehiago ekarten eutsien.

Ha zan betekadea! Ha zan Olentzeroren poza! bere zilibota ikusirik luze beste zebal emoten eban!

Handik lasterrera, Olentzeroren inguruan jaia ospatzen egon ziran batzuei hauxe gogoratu jaken:

«Zergaitik ez dogu eroaten Olentzero herririk herri beste guztiak ere ezagutu daien Jesus Jaungoikoaren jaiotza?».

Ontzat hartu eben danak asmo hori eta Olentzerorengana joan ziran bere eritzia jakiten.

Olentzerok baietz esan eutsen baina ahalegin guztiak eginda ere betekadearen betekadeaz ezin zan mobidu.

Orduan, Olentzero ezin zala mobidu ikusirik, herriko gizon indartsuenak alkartu, haritzezko habe batzuk hartu eta eskilara berezi bat egin eben jarleku eta guzti, Olentzero bertan ezarri eta andarik-anda lepoan eroateko.

Arotz onak egozan herri haretan eta arin eta ondo egin eben eskilara berezi hori.

Arineketan joan ziran herriko enparantzara Olentzero gainean ezarteko.

Bien bitartean herriko emakumeak, batu ahal izan ebezan jantziekin majo-majorik jantzi euskun gure Olentzero, buruko txapel, samako zapi, lehenagoko burrusa, aldeko alkondara eta praka urdinak, garriko baltz eta abarka-medi eta guzti.

Olentzerok bere aldetik, partikeran eukan pipa handi bat hartu, hortzetan ipini, harrizko txiskeruarekin biztu eta ketan egoan ondoan eukan lizarrezko makulu handiari eutsala.

Dana egoan gertaturik baina herriko bertsolari, albo-kari, dultzaineru, txistulari eta soinulariak Olentzerori abesti bat egitea pentsatu eben herririk herri abestuteko.

Ez ekien zelako abestia egin, eta batak hau besteak

hori, azkenean Olentzerok berak egin ebana kontatzen dauan abesti bat egin eben.

Olentzeroren abesti hori, gaur ere pozik abestuten dogu Gabon ingurua heltzen danean.

Hurrengo egunean, herriko gizon indartsuenak alkartu eta Olentzero eskilara gaineko jarlekuan ezarri eben, janari eta guzti.

Gero andariak lepoan hartu eta pozez beterik urten eben herritik beste herri batzuetara barri ona eroateko.

Bidean Olentzeroren abestia, abestu eta abestu joan ziran eta herri guztietan zabaldu eben Jesus Jaungoikoaren jaiotzaren barri.

Herriko ipuinak diñoanez, Olentzerorekin amaitu ziran Euskal Herriko jentilak.

Harrezkero Euskal Herrian ere Jesus Jaungoikoaren argia daukagu. Ez daigun galdu argi hori!

OLENTZEROREN ABESTIA

«Olentzero joan zaigu
mendira lanera,
intentziyuarekin
ikatz egitera.
Aditu duanian
Jesus jaio dala
lasterka etorri da
berri ematera».

«Orra, orra,
gure Olentzero,
pipa ortzean dula
eserita dago.
Kapoiak ere baditu
arraultzatxoakin
biar merendatzeko
sagardoarekin».

«Olentzero, buru andia
entendimentu gabia
bart arratsean,
edan omen du
bost arruako zagia.
Ai, urde tripa andia!».



Andarik-anda: Beste batzuen gainean.

Arnasestua: Arnasa arin hartu.

Arrats: Iluntze.

Arrua: Arroba = 11 kg. eta pikua.

Asmoz: Gogoz.

Barri: Notizia.

Berezia: Espeziala.

Betazala: Begia itxi eta zabaltzekoa.

Bildurkilik: Bildur handiaz.

Biztanle: Bizi lagun.

Dardar: Ikaraz.

Deritxo: Deitzen da.

Distiratsu: Argitsu.

Dula: Daua.

Ebatzi: Erabagi.

Ekarriahala: Ekarriz batera.

Ekialde: Sortalde.

Enparantza: Plaza.

Eserita: Ezarrita.

Eutsala: Ondo ondoan.

Ezagutu daien: Ezagutzeko.

Ez ekiela: Jakin barik.

Gabia: Bakoa.

Gauza: Kapaz.

Gertaturik: Antolaturik.

Goibelduta: Tristetuta.

Gureak egin dau: Gure bizitza amaitu da.

Habe: Egur handia.

Haran: Mendi arte.

Harrezkero: Ordutik hona.

Harribolan: Harriak botaten.

Harriturik: Ikaraturik.

Hortza: Hagin.

Inoen: Esaten eben.

Itandu: Galdetu.

Jeuskuk: Deusku (zuka).

Ketan: Kea botaten.

Lehen bait lehen: Arin.

Majo-majorik: Dotore.

Mendebalde: Sartalde.

Nekazaritza: Labrantza.

Omen du: Ei dau.

Partikera: Poltsa.

Pozaldia: Poz handia.

Sabela: Tripa.

Txiskerua: Metxerua.

Zagia: Zaragia, narruzko ardao ontzi handia.

Zaigu: Jaku.

Zain: Itxaroten.

Zorabiatuta: Mareatuta.

Samartintxuren sorosketak

On Jose Migel Barandiaranek esaten deuskunez, basajaunak bizi ei ziran garaian Samartintxu izeneko mutil bat bizi zan Euskal Herriko baserritxu baten, bere guraso, senide eta laguntzaileekin.

Samartintxu mutil bizkorra zan eta egunero-egunero gauza barriak asmatzen ebilen herriaren onerako.

Basajaunak herritarrak baino aurreratuagoak ziran nekazaritzan eta indstringitzan, eta horregaitik Samartintxu joaten zan itauntzen basajunengana baina alperrik, ezin eutsen ezer atera, eta ganera barre-zantzoka eta kokologedarrez hasten jakozan eurenetik agertzen zan bakoitzean.

Samartintxuk, ikusiak ikusita, ez eukan beste biderik zuhurkeria baino basajaunei euren aurrerakuntzen barri aterateko.

Udako egun baten, Samartintxu aitaren oinetako nasai batzuk hartu eta basajaunengana joan jakun.

Basajaunak gari pilo handiak eukiezan eginda eta poz pozik egozan gari piloei begira.

Halakoren baten Samartintxu heldu zan basajaunen artera eta ikaraturik geratu zan hango gari pilo eralgi barri, eskuta-mutxuri, gari-meta eta gari jo beharraren jo beharra ikustean, eguzki begiko galondoetan.

Handik lasterrera basajaun batek harrokeriaz beterik esan eutsan Samartintxuri:

—Zuok hor herrian ez daukazue garirik! Guk bai, ikusten dok zelako piloak? bat handia, bestea handiagoa.

Orduan Samartintxuk zuhurtasunez beterik erantzun eutsan basajaun harroari:

—Ez, ez daukagu garirik, baina honeek gari pilo honeek ez dira hain handiak; baietz gainetik saltu egin ikutu barik.

—Ezetz egin! —erantzun eutsan basajaun batek— ezetz saltu egin! Nik bai, eta errez gainera, baina hik ezetz! hik ez dok balio, merro txankerre horrek halako horrek!

—Ez dodala balio? esan be egitea holangorik!



—Esan-esan dok ja, ja, ja... baina egin! hilako hiruk batera ere ez, samea jokatuko neunkek!

Zeinek lehenago saltu egiteko, zotz egin eben eta lehenengo basajaunari tokatu jakon.

Basajaunak hanka luzeak eukazan eta abiada harturik errez-errez egin eban saltu gari pilo nagusiaren gainetik, garau bat esan eta bera be ikutu barik.

Gero Samartintxuk, gitxiago ez izateko, abiada hartu eta indar guztiaz saltu egin arren, gari pilo handiaren erdi erdian jausi zan, eta haronako batzuk ere egin ebazan galgarau artetik harik eta bere oientako nasaiak gariz bete arte.

Basajaun guztiak barreka eta adarra joten hasi jakozan gari artean jausten ikusi ebenean.

Samartintxu triste eta lotsaturik egoan basajaunen aurrean baina barrutik barreka eta pozik oinetako nasaiak gari garauz beterik eukazalako.

Basajaunak barreka egozan bitartean, Samartintxu bu-rua makurtuta etxerantz abiatu zan ahal ebanik eta arinen, orpotan ar barik zein basajaunak atzerikara heldu.

Basajaunak Samartintxu hain arin joaten ikustean, oinetako nasaiak gari garauz beterik eroan ebazala konturatu ziran eta bere atzean jarraitu eutsien, ernegu-sartuaz ahotik bitsa dariola.

Basajaun indartsu batek harrizko aizkora handi bat

bota eutsan baina huts egin eban eta pago baten sartuta geratu zan.

Samartintxu, ha haizkora nagusia bere ondoko pagoan sartuta ikusi ebanean bildurtu egin zan eta gehiago pentsatu barik bide ertzeko gaztaina harro baten barruan es-taldu zan, estarian egotea hobeto ebalako beste odozein modutan baino.

Basajaun guztiak han ebilzan basorik baso Samartin-txuren bila baina ezin eben aurkitu.

Samartintxuk ostera dana entzuten eban gaztaina harro barrutik eta ikaratuta egoan bere ondo ondoan ebilzalako.

Basajaunak larriturik ebilzan baina halako baten eure-tariko batek hauxe esan eutsen beste guztiei:

«Ez larritu! Samartintxuk garia ohostu jauskuk baina ez jakik noiz ereiten dan, geuk bakarrik jakiguk, horre-gaitik goaxan geure kobara eta bijondaiela kakanarru horrek.

Berba honeek entzutean basajaunak lasaitu egin ziran eta barriro hasi ziran barreka eta kobarantz abiatu zira-nean euren abesti bat abestuten hasi ziran

«Orri irtete
arto ereite»
«Orri erorte
GARI ereite»
«San Lorentzotan
arbi ereite»

Hodei-hotsa eta hodei-astropalak txorien txirripiti-
txioen antzekoak baino ez ziran basajaunen durunduaren
ondoan, Estentorrek ere ez hainbesteko orroak!

Basajaunak pozik egozan baina Samartintxu pozago,
garia ohostu eta gainera noiz ereiten dan abestia entzun
etselako.

Samartintxu badezpada denbora gehiago geratu zan
gatzaina harro barruan eta basajaunen abestia buruz ikasi
eban.

Gero abestia gogoraturik berekautan kontuak atera-
ten hasi zan: «Orri erorte, gari ereite», hau da, orriak
jausten diranean garia erein, orriak udagoiengan jausten
dira, udagoiena da garia ereiteko garaia. Euffffa! Gariaren
barri guztia dakit. Euffffa!

Kontuz-kontuz urten estalduta egoan lekutik eta herri-
ra heldu zanean indar guztiaz deiadarka hasi zan esanez:

«Garia! Garia dakart! Garia ohostu deutset basajau-
nei eta badakit noiz ereiten dan!».

Herritar guztiak hurreratu jakozan baina ez eutsien
sinistu gura eta egia ala guzurra zan jakiteko esaten
eutsien:

«Non dakarzu garia ba?».

Orduan Samartintxuk oinetako nasaiak oinetatik atera
eta gari garauak erakutsi eutsezan.

Gero basajaunen abestia abestu eutsen eta hori guzti hori ikusi eta entzutean danak sinistu eben.

Gogo handiaz egozan udagoienari itxaroten eta heldu zanean garia erein eben, herrian eukien lurrik onenean. Holantxe zabaldu zan garia Euskal Herri osoan.

Samartintxu eta herriko guztiak pozik baino pozago egozan gariarekin eta gari soloa ondo baino hobeto zain-tzen eben.

Garia heldu bitartean, garia joteko tresnak eta ehoteko errotak egiten hasi ziran. Gero etxe bakoitzari deusala ogiak egiteko labeak ere egin euskuezan.

Basajaunak aspalditik ei ziran errota, labe eta holako gauzen jabe.

Samartintxu arduraz egoan ia lehenengo erroteak zelan urtengo ete eutsan pentsatzen.

Lehenengo errotea egiten amaitu ebenean martxan botaten hasi ziran eta ederto ebilen ibili ere.

Danak pozagaz saltoka ebilzala, KRAZK! KRAZK! errota-harriaren haritzezko ardatza erre egin jakien eta errotea gelditu.

Samartintxu ulertu ezinda egoan eta ez ekian zergaitik erre jakon hain arin haritzezko ardatza.

Beste haritzeko ardatz barri bat ipini eutsien eta aurrekoa legez denbora gitxi barru ha ere erre.

Orduan Samartintxu, zuhurra zanez, basajaunei zelan itandu pentsatzen hasi zan.

Bera ezin zan joan garia ohostu eutselako baina bere laguntzaile bati esan eutsan:

«Zoaz basajaunengana eta errota- harriaren ardatza zelangoa dan itandu barik, esan eiezu nire errotea gelditu barik dabilela, gau ta egun».

Joan zan laguntzailea eta basajaunen errota nagusiko ateetara heldu zanean esan eutsan basajaun errotariari:

«Samartintxuren errotea gelditu barik dabil».

Basajaun guztiak ixildu egin jakozan eta euretariko batek harriturik erantzun eutsan:

«Orduan Samartintxuk ere haltzeko ardatza ipini deutso errota-harriari?».

«Ez, baina ipiniko deutso» —erantzun eutsan Samartintxuren laguntzaileak eta arineketan joan zan herrira.

Haltzeko ardatza ipini eutsien erroteari eta gelditu barik ebilen.

Harrezkero erotaz bete ziran Euskal Herriko herri guztiak. Leku batzuetan haize-errotak eta gehienetan ur-indarrezkoak egin euskerezan ubide eta audapara luze-ederrak bitarteko direla. Ordurik hona Euskal Herrian, pauta-pauta jaten izan dogu labesurikarako ogi zuri gozoa. Gaur, miskeria da ezagun eta sarri egoten gara aho-bizarrekaz.

Basajaunak aurreratuak ei ziran eta industrigintzan burdina urtu eta landu egiten ei eben euren oletan.

Samartintxuk burdinea urtuten baekian baina gero hareek burdina zatiak bat egiten ez. Berotzen ikasi eban baina ezin ebazan alkartu.

Zuhurtasunaz baliaturik, Samartintxuk beste laguntzaile bat bialdu eban basajaunengana esanez:

«Zoaz basajaunengana eta esan eiezu badakidala burdina zatiak alkartzen».

Joan zan basajaunen ola nagusienera eta gehiago pentsatu barik esan eutsen:

«Samartintxuk badaki burdina zatiak alkartzen».

Hau entzutean ola haretako basajaun indartsu batek esan eutsan arduraz beterik:

«Samartintxuk burdina zatiak buztin uraz busti jozak ala?».

«Ez, ez ditu busti baina bustiko ditu!» —erantzun eutsan Samartintxuren laguntzaileak, eta orpoetan har barik joan zan herrira».

Eta horretara burdinea lantzen ikasi eben eta burdinazko tresna asko egin ebezan.

Samartintxuk burdinazko tresna asko egiten jakin



arren, zerra bat egin gura eban egurra ebagiteko eta enborretatik oholak aterateko, baina ezin eban lortu.

Basajaunak zerra asmatu eukien legez, Samartintxuk beste laguntzaile bat bialdu eban basajaunengana esanez:

«Zoaz basajaunengana eta esan eiezu Samartintxuk zerrea asmatu dauala».

Esan eta egin. Joan zan basajaunak pagoak ebagiten egozan basora eta esan eutsen:

«Samartintxuk zerrea asmatu dau».

Hori entzutean basajaun zerrari batek erantzun eutsan:

«Zerrea egiteko gaztaina orria ikusi jok ala?».

«Ez, ez dau ikusi baina ikusiko dau!» —erantzun eutsan Samartintxuren laguntzaileak eta ia-ia egaz joan zan herrira, atzerikara mobidu jakozan eta hankandi bizarluzeok.

Gaztaina orriaren ertzak ikusi ondoren zerrea egiten ikasi eben eta asko poztu ziran herritar guztiak.

Basajaunak haserretuta egozan eta gaba heldu zanean, Samartintxuren olara joan eta eginda egoan zerrea hartu eta hagin guztiak okertu egin eutsiezan erabili ez egiteko.

Hurrengo egunean Samartintxu eta laguntzaile batzuk olara joan ziran eta zerra guztia haginak okertuta ikusi ebenean ikaratu egin ziran eta laster konturatu ziran basajaunen bengantzeaz.

Samartintxu pentsatu eta pentsatu egoan zerra hagin-
okerra eskuetan eukala eta halakoren baten bihozberatuta
egozan inguruko laguntzaileei esan eutsen:

«Ezertan hasi baino lehen, zergaitik ez joaguk proba-
tzen zerra hau dagoan dagoanean?».

«Heuk esan dok. Goazan!» —erantzun eutsien.

Samartintxuk gogo barik ikusten ebazan bere lagun-
tzaileak baina bera pozik joian zerrea probatzen.

Heldu ziran pagadi batera eta biren artu hartu zerrea
eta pago botaten hasi ziran.

Ha zan ikustea! Haginak okertuta, lehen baino hobeto
ebagiten eutsen, holakorik!

Ha ikustean Samartintxuk sinistu ezinda egozan lagun-
tzaileei pozez beterik esan eutsen:

«Ikusten dozue? Basajaunak bengantzaz okertu jaus-
kuezak zerra-haginak baina orain euren zerra-hagin zuzen-
ak baino hobeak dituk gureak eta egurra errezago eba-
giko joaguk».

Apurka-apurka herritarrak zuhurtasunaren bidez gauza
asko egiten ikasi eben eta ez eukien basajaunen beharri-
zanik.

Urteak joan urteak etorri Euskal Herria indartuz joan
zan eta aurrerakuntza handia egin eban.

Euskaldunak zuhurak izan dira eta gara, baina zuhurtasuna bakarrik ez da nahikoa.

Zuhurtasuna zitzotazunaren barruan euki eta danen onerako erabiltzea da gauzarik ederrena.



Adarra jo: Ulea hartu.
Aho-bizarrak: Jateko gogorik eza.
Andaparea: Errotarako ur-presa.
Arbi: Naboa.
Ar: Pintxoia.
Ardatza: Ejea.
Asmatu: Inbentatu.
Atzerikara: Atze aldetik, atzea.
Atzerikara: Atzetik.
Barre-zantzoka: Barre eta barre.
Bat esan eta bera be: Bat ere.
Berekautan: Bakarrik pentsatzen.
Bihozberatuta: Triste.
Bijondaiela: Biaje ona egin daiala.
Bitsa: Txu-zuria.
Buztin: Lur berezi bat.
Dagoan dagoanean: Dagoan legez.
Dariola: Jausten.
Deiadarka: Deika eta zarataka.
Deutsala: Ikututen.
Dituk: Dozak, dira (zuka).
Durundua: Zarata.
Eguzki-begi: Eguzkiak jotzen dauan tokia.
Eho: Uruna egin.
Enborra: Trongoa
Ernegu-sartua: Gorrotua, arrabioa.
Eralgi: Galbahetik pasatu galgaraua.
Erorte: Jauste.
Errota: Garia eta artoa ehoteko lantegia.
Errotaria: Errotako langilea.

Estentor: Abots ikaragarridun greziarra.
Eurenetik: Euren parajetik, ingurutik, bizi-lekutik.
Ertza: Bazterra.
Eskuta: Esku barru biak harta ahaleko gari-txorta.
Estaldu: Ostandu, ezkutatu.
Estarian: Estalian, ostanduta.
Galondoa: Garia egondako soloa.
Garaia: Denbora.
Garia jo: Garia garandu joaz-joaz.
Gari-meta: Eskutak edo galtzupoiak bata bestearen gainean eta gorantz eginean tolestutako txondorra.
Gaztaina-harro: Gaztaina-enborra barrutik janda.
Goaxan: Goazen (zuka).
Goazan: Goazen (zuka).
Haize-errota: Haizeaz mugitzen ziranak.
Haltza: Leku hezeetako zuhaitz bat.
Haronako: Hara eta honako.
Harrezkero: Ordutik hona.
Harriturik: Ikaraturik.
Harro: Barrutik hutsik.
Hodei-astrapalek: Trumoiia.
Irtete: Urtete.
Jakiguk: Dakigu (zuka).
Jakik: Daki (zuka).
Jakun: Zan (guri).
Jauskuezak: Deuskuez (zuka).

Jauskuk: Deusku (zuka).
Joaguk: Dogu (zuka).
Jozak: Dautz (zuka).
Kakanarru: Oker, gaizto...
Kokolo-gedarrez: Kokoloa dala esaten.
Labea: Ogia erretzen dan tokia.
Labesurikara: Labean erre eta segituan
Merro: Indar bako, argala.
Mutxuri: Eskuta batzuk zutunik alkarri deutsalara.
Nasai: Lasai.
Nekazaritza: Labrantza.
Ola: Burdina urtu eta lantzeko lantegia.
Ondo baino hobeto: Oso ondo.
Orpoetan ar barik: Arin, korrika, Karran.
Orpoetan har barik: Arin.

Orroa: Ganaduen aho zarata.
Pagadi: Pagodun basoa.
Pozik baino pozago: Oso pozik.
Samea jokatu: Postura, apostu egin.
Txankerre: Hanka meheak dituen.
Txirripitixioak: Txori-kanta.
Ubide: Errekatik errotarako ur bidea.
Udagoiena: Udazkena.
Ur-indarrezkoak: erreka-ertzeta-koak.
Urtu: Funditu.
Zein... heldu: Helduan be, helduko balira lez.
Zerrari: Zerrarekin dabilen langilea.
Zotz egin: Suerteak bota.
Zuhurkeria: Argitasuna.
Zuhurtasunez: Argitasunez.
Zuhurra: Bizkorra, jakituriduna.

Gaueko argi Ibiltaria

Egun baten Gorbeako artzain bat ganadu-feria batera joan zan ardi batzuk saltzeko asmoz.

Lehenago, ganadu-feria asko egiten ziran. Esate baterako Arratiako lurraldean zapatu bakoitzean herri baten egiten zan eta inguruko herrietakoak euren idi, behi, txal, asto, zaldi, txarri, ardi edo dana dalakoren bat harturik, han alkartzen ziran sal-erosketok egiteko.

Gure Gorbeako artzaina ere han egoan bost edo sei ardirekin nork erosiko itzaroten.

Halakoren baten, txapel, burrus eta abarka-medidun gizon bat hurreratu jakon esanez:



—Zegan daukozak ba ardiok?

—Hamar mila erlean bakoitza.

—Zortzi ere nahiko dok honeentzat!

—Hago ixilik! Hamarrean ere merke dozak eta!

—Merke dinok! Ba, lehengo zapatuan ondo merke saldu joazan zereko urliak!

—Halakoak izango zoazan! Honek ikustea baino ez jagok, gazteak, lana onekoak eta umegin onak dozak.

—Dana dala, karutxuak dozak, ezingo joadaz erosi.

—Diruari begira ez hadi egon eta erosi eistazak, ez haz damutuko eta. Eta gainera danak erosten badeustazak artxo eder bat emongo deuat.

—Tirauk ba! Zuok artzainok eskola asko dakizue eta ez jagok berbarik gehiago. Eutso dirua eta kitu!

Artzainak diruak ondo gorde ebazan garrikoaren barruan eukan zakutoan eta hitz asko egin ondoren eztarria sikutxu eukan legez, herriko tabernara joan zan.

Ardoa hutsean edan barik, mahaian ezarri eta bazkaria eskatu eban. Danerik atera eutsien atera ere eta ekarriala dana garbitzen eban. Edan ere polito. Kafe, kopa eta puroa ere mahai gainean eukazan. Ondo beteta egoan gure artzaina, zilbota eginda. Bere erako bertso batzuk ere bota ebazan. Zoriontsu egoan.

Egon eta egon, orduak aurrera eta iluntzea heldu zan. Gure artzaina bere begietako lausoa ete zan egoan baina benetan berandu zan eta txabolea han, Gorbeapean, Igrinaon, urrun baino urrunago.

Artzainak, danak ere, ibiltariak dira eta ez daukie kilometroen bildurrik baina gure artzaina ez egoan ohetik jagi barri, bete beteta baino.

Halakoren baten, bazkaria eta gainetikoak ordaindu, makila hartu, txakurrari txistu bat egin eta han doa gure artzaina biderik bide lehenengo, eta basorik baso gero.

Joan eta joan, Arrabako landara heltzen egoala argi berezi bat ikusten eban bere gainean.

Hilargia izango zalakotan egoan baina ez, ez zan hilargia. Hilargia bere lekuan egoan eta gainera hilgoran. Ha argia beste bat zan, inoiz ikusi bakoa, eta gehiago oraindik, bere atzean joian denbora guztian. Artzaina ez eze, txakurra ere argiari adi egoan eta artzainaren hanka artetik urten ere ez eban egiten.

Halan eta guztiz ere, aurrera egin eban Arrabako landatik zehar, baina argia beti bere atzean eta geroago eta hurrago.

Arineketan hasi zan apur baten zer jazoten zan ikusteko baina argia bera bestean edo arinago joian.

Artzaina ez zan bildurtia baina oraingoan ia-ia arnasa ere faltatu egin jakon. Nori deiturik ere ez eukan, arineketan egitea alperrekoa zan, ez ekian ez zer egin ez nora jo.



Igrifiaora heltzeko gitxi falta zan eta artzainak hankak ez eze burua ere beroturik eukan argi berezi ha zala eta. Hain egoan sutan, badino berekautan:

—Hau dok izatekoa! Sekula ez nok bildurtu ezegaitik eta gaur argi madarikatu honek ni bildurtu! Ez horixe! Igrifiaora heltzen noanean ikusiko jok horrek! Txabola ondoko pagadira heltzen banok eta pago errama handi bat hartu... ikusiko joaguk gehiago nor dan!

Pagadira helduaz batera, argia ere, inausi bako pago baten errama artean geratu zan.

Artzainak orduan, geratu egin zala ikustean, han lurrean egoan pago errama handi bat hartu eta argia egoan pagapera joan zan.

Indartsua bazan artzaina, une haretan oraindino indar gehiago eukan hark argiak su eta gar ipini ebalako.

Denboratik galdu barik, eskuetan eukan pago errama luzeaz joten dau argia eta han sortu zan sortzekoa!

Argia zatitu egin zan eta une berean deabru eta inpernukoz bete zan Igrifia guztia! Ha zan izatekoa!

Artzainak egoera ha ikusi ebanean, deabrueri pentsatzeko astirik emon barik, hasi zan arinetan eta aurrekorik ere ikusten ez ebala, jo Igrifiaoko ermitako atea eta barrura sartu zan.


Deabruak, ermita inguruan sokorru baten ebizen artzaina harrapatu gurean baina ezin ziran ermitan sartu.

Gau guztia emon eban artzainak ermita barruan. Erre-
zu batzuk ere egin ebazan. Egunsentia heldu zanean eta
harri-kanpaiak entzun, ermitatik kanpora urten, badaezpa-
da inguruetatara begiratu eta areriorik ikusi ez ebanean,
bere txabolara joan zan.



Arerio: Kontrario.
Berekautan: Bere buruari.
Berezi: Espeziala.
Bestean: Legez.
Ekarriala: Ekarriz-ekarriz.
Erla: Erreala.
Eutso: Hartu.
Harri kanpaiak: Albako kanpaiak.
Hilgora: Hilargia hasten.
Igrinao: Gorbea ondoa.
Inausi: Podatu.

Lausoa: Bista txarra.
Pagadi: Pago basoa.
Sekula: Inoiz ere ez.
Su eta gar: Haserre.
Sutan: Haserre.
Tirauk ba: Bueno ba.
Umegin: Ume egile.
Urlia: Fulano.
Zakutoa: Zaku txikia.
Zegan: Zenbat dirutan.
Zilbota: Tripea lodi.



Txiko parte txarrekoa

Orain dala hainbat urte, ia kotxerik ere ez egoanean, mutil gazte bat lagunekana joan zan zapatu arratsalde baten.

Mendiko baserri baten bizi zan eta bide luzea eukan herrira joateko.

Udagioiena zan eta denbora ederra egoan. Herriko gazteak beti legez, bata lehentxuago bestea gerotxuago, herriko tabernan alkartu ziran.

Lehenago ez egoan gaurko konturik eta zapatuari antza emoteko gure mutil gazteak merinda-afaria egin eban lehenengo eta gero kartetaldi bat.

Baina tabernan denbora arin joaten danez, mutil gazteari ere berandu egin jakon eta bere baserria lekutako puntan egoan.

Halako baten etxerantz abiatu zan. Eleiz ondotik joiala abemarietako kanpaiak entzun ebazan eta joanean-joanean angelus errezatu eban, ohitura zan legez.

Basorik baso joian, behin pagapetatik, behin gaztainapetatik, baina bildur barik, bidea ondo ezagutzen eban eta.

Ez zan bildurtia baina gabaz edozein zarata zan nahiko buruko uleak arteztuteko eta noizbehinka zarata batzuk ere entzuten ebazan baina aurrera egiten eutsun.

Zerua ez egoan guztiz erresu eta lainoak hilargipean jartzen ziranean ez zan ia ezer ere ikusten epertargiren bat edo izan ezik. Baina barrero hilargia ikusten zanean eguna zala zirudien basoko iluntasunean.

Halakoren baten hilargia laino lodi baten gainean sartu zan eta ez eukan zati baten agertzeko asmorik.

Gure mutil gaztea larritu egin zan apur bat, ilun ere ilun egoan eta.

Joan eta joan, bide kurtze baten zeozer mogitzen zan eta gure mutil gaztea geratu egin zan badaezpada zer zan jakin arte.

Astiro-astiro hurreratu zan eta txiko bat zan, zaldikuma bat. Ez zan ikaratu mutila ohituta egoalako abereekin ibilten.



Sustua joan eta gero, txikoari: «joan hadi hortik» esanda, aurrera egin eban.

Baina txikoa bere atzean joian eta irrintza arraroak egiten ebazan gauza onerako.

Mutil gazteak uxatu egiten eban txiko ha baina alpe-
rrik, geroago eta artegago ikusten eban.

Halan eta guztiz ere mutila aurrera joian eta gehiagoko barik txikoa bere gainetik saltoka, haginka eta ostikoka hasi jakon.

Mutil gaztea ikaratu egin zan, horrelako txikorik inoiz ez ebalako ikusi eta beragandik defenditzeko arineketan hasi zan.

Arin ebilen mutila baina txikoa arinago. Larritasunaren larritasunaz, mutilak ondo ekizan bideak ere, galdu egin ebazan.

Mutilak baeragoion txikoa uxatzen baina ezin eban. Indarrak ere amaitzen joakozan eta txikoa geroago eta berdeago.

Ha zan gauaroa! Mutil gaztea indartsua eta ibiltaria zan baina txiko madarikatuak gehiago egiten eutsan.

Gaba guztian ibili ziran, ibili ere, baso ilunean batetik bestera mutil gaztea aurretik eta txikoa atzetikara.

Haronako baten gure mutil gazteak barriro aurkitu eban bere etxerako bidea eta ondo baino hobeto ezagutzen ebanez, lehen baino arinago joian, egaz ere ez arinago!

Oraingoan txikoarengandik apurtxo bat aldendu zan baina ez gauza handirik.

Handik aureratxoago ikazginak egozan ikatza egosten eta mutil gazteari indar barriak etorri jakozala esan leikean ikatz txondorretako kearen usaina barruntatzean.

Baina ez eukan inorekin hitz egiteko gogorik, eta aurre-ra egiten eban atzera begiratzeko ere asti barik.

Bere baserri ondoko korta-basora heldu zanean adore apur bat gehiago etorri jakon etxera hurreratzen egoan eta.

Handik lasterrera txikoa nondik etorren jakiteko, begiratzen dau atzerantz... eta ez dau ikusten ba ahotik sua dariola!

Une haretan, gehiago pentsatu ere egin barik, han bazter baten egoan haritz-egur handi bat hartzen dau, badao aurrez aur txikoarenganatz, joten dau buru buruan eta jo baeban ze, han sortu zan sortzekoa! Txiko madarikatua deabru berbera ez jakon bihurtu ba!

Mutil gazte errukarria zoratu ez zanean bertan! Arna-sea ere ebagi egin jakon eta bihotzeko taupadak kontatu ezinekoak ziran.

Baina bizia bat baino ez dala eta, hasten da barriro arineketan, eta erdi zoraturik, nondik joian ere ez ekiala, azken baten heldu zan bere baserrira.

Heldu zan etxera baina ez eukan aterik joteko astirik, eta kontuak atera zelako abiada ekarriko eban, jo ostikada

bat ateari, apurtu barruko txaramela eta sutondoko aurki baten ezarri zan guztiz ahuldurik, berbaltu eta guzti.

Etxekoak, jagita egozan, igandea zanez, goizeko mezara joateko asmoz, baina mutil gaztearen etorrerea ikustean hasi jakozan esaten:

—Zer Jaungoiko! Zer jazo jatzu ba?

—Ene, ama! Ene, ene! Hau izan da izatekoa!

—Baina zer izan da ba?

—Zer izan dan? Ba, hauxe eta hauxe... honantxik eta honantxik... txiko madarikatu bat deabru ez jat bihurtu ba!

—Zer dinozu semea? —esan eutsan amak.

—Bai ama, bai; sinistu ez egiteko modukoa da baina egia da.

Mutil gaztearen aita ixilik egoan supazterrean eta amasemeak bihozberatuta ikusi ebazanean esan eutsen:

—Gure aita defuntuak esan beist, lehenago ere jazoten ei ziran holako kontuak. Ni neu ere estukura baltza pasatuta nago neure gazte denboran holako kontu bat dala eta ez dala. Nik neuk ere entzutea daukat deabrua batzuetan animalietan sartzen zala baina holako kasuetan errezatuz gero, ez ei zan ezer jazoten, otoiitz egin ezik ostera bildurgarria izaten ei zan.

Gure mutil gaztea lasaitu egin zan aitaren hitzak entzutean eta hurrengorako baekian zer egin: ohitura zaharra jarraitu!



Ahuldu: Nekatu.
Atzerikara: Atzetik.
Beits: Eustan legez.
Berbaltu: Tartamuta egin.
Berdeago: Haserreago.
Bihozberatuta: Triste.
Dariola: Botaten.
Epertargia: Eperdian argia daukan
insektua.
Eragoion: Ebilén.
Erresu: Laino barik.

Estukura baltza: Sustu handia.
Gauaroa: Gaba.
Harona: Hara ta hona.
Kartetaldi: Karta-jokoa.
Korta-baso: Lehenagoko propietate
biribilak.
Lekutan: Urrun.
Txaramela: Pasadora.
Txiko: Zaldikuma.
Uxatu: Alde egin erazi.
Zupazterra: Su ondoan.



Jentil buruarina eta Perutxu zuhurra

Perutxu, Euskalerriko sendi bateko semerik gazteena zan eta bere etxeoak errentadore legez bizi ziran baserri zahar baina polit baten.

Neba-arreba asko eukazan Perutxuk baina errentadoretzan etorri gitxi egoala eta, gaur bat, bihar beste bat neba-arreba guztiak banandu egin jakozan bizimodua aurrera eroateko.

Perutxuk eskolea amaitu barri eukan eta etxean egoan zeinakio. Gurasoak zahartxuak ere baziran, eta ez eukien ganadu handirik ere, behi bat, ahuntz batzuk eta dozena bat oilo baino, baina hori bai, txarriak ederretik ere pa-

sauak eukiezan; apoa ederra bazan makerea ederragoa eta urterako itxita eukin arkalea hamazazpi arroatik gorakoa zan.

Gabon ingurua heldu zanean, txarria hiltekoztat egozan baina arkale hori irusi zala eta itxaron egin behar eben irusi alditik urten arte.

Irusi-begira horretako egun baten beti legez, korta beharrak egiten doazela, urterako eukien txarri eder hori kortatxitik faltau jaken. Bideak betean ibili ziran txarri hori bila baina errasturik ere ez, inork ez ekian ezer.

Perutxuren gurasoak, goian zerua eta behean lurra geratu ziran urte luzea txarriki barik ikustean.

Perutxuk, gurasoak hain triste ikustean, ez ekian zer egin eta belea baltzago ez dala egingo eta, badinotse gurasoei:

—Badakizue zer pentsatu dodan?

—Zer semetxua?

—Ba, besterik aurkitzen ez dodan bitartean, zeragana, hor mendian bizi dan jentil txarri-pastoreagana kridu joatea!

—Ez Perutxu, ez; pentsau ere ez! Ez dakizu ba hori jentil hori handia eta indartsua dana? Horrekin bromagitxi! Oraindino herriko inork ez deutso gehiago egin!

—Bai, hori guzti hori badakit, baina hori jentil hori

ez da bat ere buru-argia, indartsua bakarrik. Kontuz-kontuz ibiliko naz beragaz eta banoa!

Perutzuk hartu bere gauzak eta badoa basorik baso jentil txarri-pastoreagana.

Jentilak harrizko txabola bat eukan haize begi baten eta txarri eli bat inguruko pagadietan.

Halako baten heldu jakon Perutxu eta gizon batek legez badinotso:

—Zelan habil ba jentil handia?

—Ni neu ondo, eta hi?

—Ba, ondo ez! Errentadore baten seme gazteena nok eta urterako geukan txarri ederra ostu jauskunez kridu legez heugana etortea pentsatu joat.

—Ja, ja, ja! Txarria ostu? Nor izan ete dok e? Ja, ja, ja! Eta kridu esan dok? Baina, hik ez daukat bata indarrik?

—Ez jaukadala indarrik? Bihar ikusiko dok!

—Bai gura badok! Baina non eta zertan?

—Ba, esate baterako, harria zeinek urrunaga bota!

—Bai, mutiko! Harria bota ez jakiat baina txakur-ametsak egiten badakik sikeran!

Eta orain nigaz kridu gura badok, itxi trasteok hemen eta zaindu nire txarriok, bata baino bestea ederragoak dozak eta!

Peutxuk gogotsu heldu eutsan lanari eta txarriak zainduz-zainduz, hurrengo eguneko txapelketarako zer asmatu pentsatzen egoan.

Burua txapela eroateko bakarik ez dala eta, ibili eta ibili, pago zulo baten okil-habia bat aurkitu eban eta zazzt! badino berkautan: «Badakit bihar zer egin! Okila hartu eta harri orde bota, hori jentil kokolo hori ez da konturatu ere egingo eta!».

Gaba heldu zanean jentilak eta biak urdai eta lukainkaz bete euren urdailok eta lastamarrazko ohe banatara joan ziran.

Hurrengo goizean Perutxu, goizean goizetik, jentila konturatu orduko joan pagadira okil amea habiatik hartu, kolkoan sartu eta barrero txabolaratu jakun.

Jentila ere iratzartu zan eta nagiak atera eta gero badinotso Perutxuri:

—Non daukak ba harria?

—A! bai, oraintxe hartuko joat hortik nahi-nondik!

—Nork botako jok lehenengo ba?

—Ba, heuk bota heik, zaharragoa ere bahaz eta!

Orduan jentilak hartzen dau bere eskuak ahaleko harritzar bat eta beste mendiraino bota eban.

Gero Perutzuk hartzen dau ukabila lako harri bat eta jentila konturatu ez egiteko hasten da atzera eta aurrera, gora eta behera... eta jentila erdi durdiduta ikusi ebanean bere sapa saltuei begira, hartzen dau kolkoan eukan okila eta ahal dan guztizko indarraz bota eban bota ere «harria».

Perutzuren «harria» joan eta joan, geroago eta urrunago, beste mendi gainetik aurrera joian.

Jentilak ezin eban sinistu baina ezin eban ezer esan egia zala ikusten eban eta.

Perutzuk, jentila harriturik ikustean, bildur apur bat sartzeko badinotso:

—Ikusten dok? Nork bota jok harria urrunago?

—Heuk!, baina bihar zeinek harri bat zati gehiagotan zatitu egingo joaguk.

—Bai gura badok! Ni ez nok hi besteko handia baina ikusten dok nire indarra?

—Tira-tira! batek ez jok dana esan gura eta bihar ikusiko joaguk. Orain joan hadi txarriak jagoten!

Perutxu joan zan txarrietara baina lan bi batera egiten ebilen, txarriak zaintzen eta bigarren txapelketarako zer-bait asmatzen.

Egun guztiko buru haustea ez zan alperrekoa izan. Gaba heldu zanean eta afaldu, gaubon esanda, lo joan ziran biak.



Jentila lo-arrantzaka egoan bitartean, Perutzuk, sutera joan, maskelutik esnea hartu, legarra bota eta molde bako gaztai bigun bat egin euskun.

Hurrengo goizean Perutxu kukurrukuaz batera jagi, oherikara kanpora urten, lur birrin apur bati ura nahastu eta gaztai bigun hori kontuz-kontuz igurdi eban benetako harri baten itxura emonaz.

Jentila aharrausika jagi zan eta barausi ebanean txabola aurrera urtenik badinotso perutzuri:

—Goizetik ere jagi haz Perutxu?

—Bai, loz askatu egin nok eta.

—Non dok ba harria?

—A! hor bazter baten hartuko joat, hi heu hasi hadi lehenengo!

Jentilak, harrokeriz beterik, ikaragarrizko harritzar bat hartzen dau, haitz zati baten gainean ipini, jo ukabilkaso bat eta laurkindu egin eban harria.

Perutzuk ere kontuz-kontuz hartu bere «harri» hori, haitz gainean ifini, jo beste ukabilkaso bat eta birrindu, hauts egin eban harri hori!

Ha ikustean, jentilak dar-dar esan eutsan Perutzuri:

—Baina, hik non daukazak ba indarrok?

—Hik zer uste dok ba, heu bakarrik hazela indartsua ala?

—Ba, mutil, hilakorik ez joat inoiz ikusi. Baina eginak eginde ere hik ez daukak nik beste indar, nik neuk pago nagusiak ere zirri hasko barik ateraten joadaz.

—Ba! hori edozeinek egiten jok!

—Edozeinek? Bihar egingo joaguk orduan! Orain joan hadi txarrietara!

Perutxu poz pozik joian txarri artean pagaperik pagape eta ezkur asko egoan pagadi baten txarriok itxi eta ezarri egin zan hirugarren txapelketarako zeozer asmatzen.

Ezarrita egoala txarri arkale eder bat etorten jakon ondora krum! krum! krum!

Perutxu ez zan ikaratu baina aurrerikara, atzerikara eta alborikara begiratzen hasten da... eta eurei ostuko txarri arkalea! Bada-ezpada zihurrago egoteko, kurr! kurr! kurr! egiten deutso eta ene! bere atzean, nora gura eta haraxe!

Perutxuk orain ardura bi eukazan aldean, hirugarren txapelketa eta aurkitu barri eukan euren txarri arkalea barrero etxera eroatea.

Txarria barrero etxera eroateak ez eutsan buruko min handiegirik emoten Perutxuri, baina bai hirugarren txapelketak.

Gautu ebanean, beti legez, kakoko apur bat eta artosopak jan eta ohera.

Perutxuk, zeozer asmatu guraren asmatu guraz, lorik ere ez eban egin eta eguna heldu zanean jentila txabola aurean eukan pago atarateko prest.

Handik lasterrera Perutxu ere agertu zan, bepuruak handituta eta logurea dariola.

Txalpelketa, berbea emonda egoan eta ez egoan atzeratzerik. Jentila pagadirantz mobidu zan eta Perutxuri ez jakon besterik etorri burura soka luze bat hartzea baino. Soka hori hartu eta jentilari atzerikara jarraitu eutsan, berekitan pentsetan: «Sokaren honek ondo urtengo baleust lurre jota itziko neunke burubako kankailo hori...».

Heldu ziran pagadira eta... han egozan pagotzarrak!... inguruko handienak ez baziran!

Jentila, pazientzia bako hutsa zanez, hasten da pagoak banan-banan ateraten eta atera ere porruak legez ateraten ebazan.

Perutxu, bien bitartean, hartu soka luzea eta pago puntak estu eta estu ebilen pagorik pago.

Jentilak bat ere ikara barik zazpi-zortzi pago atera ebazanean badinotso Perutxuri:

—Zertan habil mutil?

—Zertan ibiliko nok ba, pago guztiak lotuten danak batera aterateko!

—Ez, mutil! ez eizak danak atera, ezkur barik itxiko deustazak txarriak eta!

—Bueno, baina nor dok gehiago?

—Heu, heu haz! Ekark soka hori eta joan hadi bake bakean txarriak jagothen.

Jentila burua makurtuta eta bihozberatuta joian txabolarantz Perutxuk zer pentsatu emon eutsan eta.

Perutxu ostera txistuka joian txari artean, eta asmatu barri eukan gorabeherea aurrera eroateko, oraingoan txarri elia bere baserritik hurren egoan pagadira eroan eban.

Pagadi haretan artzain baten txabolatxu zahar bat ere baegoan gaztai tresna eta guzti.

Perutxuk denborarik galdu barik, berea zan txarri arkaleari kur! kur! kur! eginik txabolatxu barrura eroan eban eta gaztai balde baten odola hartuz hil egin eban txarri ederra gero jentilak ez dakiala etxera eroateko asmoz, hilda eroatea, bizirik eroatea baino errezagoa zan eta.

Txarri hori hil, erre, garbitu, tripak atera, kako baten eskegi, esteak garbitu, puxigea putsitu, odola baldetik puxigara bota, moropil bat emon eta etxerako prest egoan gero gurasoekin etorri eta txarri osoa eroateko.

Jentilak txarri irrintzak entzun egin ebazan baina ez ekian Perutxu non egoanik ere eta bila ebilen pagaperik pagape.

Perutzuk badaezpada txabolatxutik urten orduko inguruetara begiratu eban eta jentila erdi zoraturik ikusi eban kutxillo handi bat eskuan dauala.

Perutzuk, jentila beragana etorrela ikustean, hartu odoldun puxigea, kolkoan sartu eta etxera bidea hartu eban.

Joan eta joan, Perutxu, bere etxera bidean egoan baserritxu batera heldu zan eta han etxean bizi ziran Peru eta Marieri badinotse:

—Jentilik ikusten dozue?

—Bai, atzerikara datortsu kutxillo bat eskuan dauala!

—Ba, arinago egiteko, kutxilloa sartu behar dot «tripatik»!

Perutzuk, Peru eta Marieri keinu bat eginaz, sartu eban kutxillotxu bat bere «tripatik» eta odola dariola joan zan.

Handik lasterrera heldu zan jentila ere eta badinotse Peru eta Marieri:

—Perutxu ikusi dozue?

—Bai, oraintxe puntuan joan da, eta zu atzerikara zatorzela ikustean, kutxilloa sartu dau tripatik arinago egiteko.

—A! Bai? Neuk ere horixe egin behar dot, ia arinago egin eta Perutxu harrapatzen dodan.

Jentil kokoloak tripa tripatik sartu eban kutxilloa eta hil.



Aharrausika: Ahoa zabaltzen.
Alborikara: Albo aldetik.
Amea: Animalien ama.
Apoa: Txarri arra.
Arkalea: Urteko txarri emea.
Arroa: 16 kilo.
Atzerikara: Atze aldetik.
Aurrerikara: Aurre aldetik.
Barausia: Gosaria.
Begira: Itxaroten.
Belea baltzapo ez de egingo: Hortik
Bepurua: Begi burua.
Berekautan: Bere buruari.
Bihozberatuta: Triste.
Birrindu: Zati txikiak egin.
Birrindu: Zatitxuak egin.
txarragorrik ez datorrela.
Dariola: Jausten.
Durdiduta: Zoratuta.
Eli: Abere taldea.
Estu: Lotu.
Etorri: Diru, emaitza, etekin.
Goian zerua behean lurra: Ezer be-
barik.
Haize begia: Hiazeak jotzen dauan
tokia.

Harritzar: Harri handia.
Irusi: Zeloan.
Jagon: Zaindu.
Kakoko: Txarriki.
Kankailo: Hankandi.
Keinu: Begi bat itxi.
Kortatxi: Txarri korta.
Lastamarra: Lastodun ohea.
Laurkindu: Lau zati egin.
Legarra: Esnea gogortzeko ura.
Logura dariola: Logura handiarekin.
Lurra jota: Adore barik.
Maskelua: Esnea egosteko tresna.
Makera: Txarri emea.
Moropila emon: Estu.
Nahinondik: Edozein tokitatit.
Oherikara: Ohetik zuzenean.
Okil: Txori bat.
Puxiga: Txixxe-poltsa.
Sikeran: Si quieran.
Txakur amesa: Amesa.
Zeinakio: Zer egin ez dakiala.
Zera: Esanai zehatz bako komodina.



Juan Manuel Etxebarria Ayesta, Zeberiokoa, 1948 - XI - 2an jaioa dogu. Filosofiararteko ikasketak egin ondoren Derioko Seminarioan, Magisteritza egin euskun. Karrera barria zabalduz batera, Euskal Filologian lizentziatu jakun Deustuko Unibertsitatean,

ohorezko matrikula ateraz. 1988tik "Cum Laude" eta guztizko doktorea dogu Euskal Filologian "Zeberioharaneko euskeraren azterketa etno-linguistikoa" iker-gaiaz.

Gaur egun, Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedratikoa da eta Deustuko Unibertsitateko euskal Fonetika eta Fonologiako irakasle doktoraduko kurtsoa be azaltzen daualarik. Hamabost urteokaz, On Jose Migel Barandiaranen zuzendaritzapeko Bizkaiko ETNIKER taldekidea dogu. Euskeraren aholku batzordean be parte hartu dau eta Derioko Udako Ikastaroan be euskera biziä aztertzeko oinarriak eta metodologia irakasten dario.

Guzti honen ondoren, idazlea be badogu. Batez ere hiru arlo landu ditu: euskal linguistika, etnografia barruan etno-testoak eta ipuingintza Bizkaiera gaurkotuan.

Ipuingintzan asko idatzi deusku, (dozena bat liburitik gora) batez be gaztetxuentzat eta idazten dara-goio.

Lehendik be bai, baina batez be doktorego tesia burutu dauanetik, argi be argi ikusi dau euskera biziak daukan garrantzia euskeraren etorkizunerako. Euskalkiak **bizi** dira eta jakina, Bizkaiera be bizirik dago bere aberastasunean.

Juan Manuelek (Manuk) honeetan ipuinotan Bizkaiko herri-euskera biziä hartu dau eta gaurko Bizkaiera literariora jaso etorkizunera bideratzeko batasun zabal, aberats eta zentzundun baten bidean.